

Estatistika-parametroak zenbakizko balioak dira eta balioen banaketan ezaugarri batzuk zehazteko erabiltzen dira. Estatistika-parametro ezberdinak daude baina errazena eta gehien ezagutzen direnak parametro zentralak dira, hau da: mediana, moda eta batezbestekoa. Dagoeneko jakingo duzu zein diren horien definizioa eta esanahia, eta horregatik beste parametro batzuk aipatuko dizkizugu: posizio-parametroak.

Mediana, parametro zentrala izateaz gainera posizio-parametroa ere bada, banaketaren erdian dagoelako.

Demagun hurrengo datuek adierazten dutela erabiltzaile jakin batzuek astean zenbat ordu ematen duten normalean Internetera konektatuta: 4,8,3,5,6,7,8,2,10,5,6,9,2,4,6,10,8,7,6,8

Banaketa hori ondo aztertu ahal izateko datuok txikitik handira ordenatu behar ditugu: 2,3,3,4,4,5,5,6,6,6,6,7,7,8,8,8,8,9,10,10

Banaketaren mediana 6 da, banaketako hamargarren eta hamaikagarren balioen artean dagoen batezbestekoa delako:

**2,3,3,4,4,5,5,6,6,6 ---- 6,7,7,8,8,8,8,9,10,10**

Banaketaren bi erdi horietako bakoitzeko medianari kuartil deritza:

1. kuartila: **2,3,3,4,4 ---- 5,5,6,6,6**ren mediana; kasu honetan 4 eta 5en batezbestekoa, hau da, 4,5


2. kuartila: banaketaren mediana: 6

3. kuartila: 6,7,7,8,8 --- ,8,8,9,10,10 mediana; kasu honetan 8 eta 8ren batezbestekoa, hau da, 8.

Banaketaren batezbestekoa hau da:  $(2 + 3 \times 2 + 4 \times 2 + 5 \times 2 + 6 \times 4 + 7 \times 2 + 8 \times 4 + 9 + 10 \times 2) / 20 = 125 / 20 = 6,25$

❖ Egizu histograma bat datu horiekin eta gero sartu hurrengoak: batezbesteko aritmetikoa, 1., 2. eta 3. kuartilak.

❖ Aztertu arreta handiz hurrengo kontzeptu-mapa.



❖ Definitu mapan ageri diren 12 izen horiek. Adibidez:

1/ Banaketa estatistikoa aldagai estatistikoko balio multzoa da.

- 2/ .....
- 3/ .....
- 4/ .....
- 5/ .....
- 6/ .....
- 7/ .....
- 8/ .....
- 9/ .....
- 10/ .....
- 11/ .....
- 12/ .....